

XEDAPEN OROKORRAK

HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
EKONOMIA ETA OGASUN SAILA

5394

258/2012 DEKRETUA, azaroaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen dekretua bigarren ez aldatzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 31. artikuluan, honako hau xedatzen da: prezio publikoen bitartez ordain daitezkeen zerbitzuak eta jarduerak dekretu bidez ezarriko dituzte, elkarrekin, ogasun arloan eskumena duen sailak eta kasuan kasu zerbitzuak zuzenean ematen dituen sailak edo zerbitzuak ematen dituen erakundearen gaineko sailak.

2010eko urriaren 6an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen irailaren 28ko 249/2010 Dekretua argitaratu zen.

Dekretu hori beste behin ere aldatu zen, telelaguntza-zerbitzu publikoari buruzko ekainaren 28ko 144/2011 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarriaren bidez, hain zuzen. Oraingo aldaketa honek, irailaren 28ko 249/2010 Dekretuko eranskinaren 2. eta 3. atalak aldatzen ditu, hau da, Herrizaingo Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hurrenez hurren, prezio publikoak zein jarduera eta zerbitzurengeatik kobra ditzaketen zehazten duten atalak.

Horri guztiari jarraiki, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Sailburuaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren, eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren proposamenez, bidezko nahitaezko txostenak egin ostean, eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin ados egonda, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko azaroaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Aldatu egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta horren erakunde autonomoen prezio publikoen bidez ordain daitezkeen zerbitzu eta jarduerak zehazten dituen irailaren 28ko 249/2010 Dekretuko eranskinaren 2. eta 3. atalak.

Bat.— Eranskinaren 2. atala aldatuko da, hau da, Herrizaingo Sailak prezio publikoak zein jarduera eta zerbitzurengeatik kobra ditzakeen zehazten duen atala. Honela geratuko da idatzita:

«2.— Herrizaingoa:

– Mintegi, biltzar, jardunaldi eta ikastaroen matrikulak.

– Datu estatistikoaren ustiapenaren salmenta eta aholkularitza teknikoa».

Bi.— Eranskinaren 3. atala aldatuko da, hau da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak prezio publikoak zein jarduera eta zerbitzurengeatik kobra ditzakeen zehazten duen atala. Honela geratuko da idatzita:

«3.– Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa:

- Mintegi, biltzar, jardunaldi eta ikastaroen matrikulak.
- Material didaktikoaren salmenta.
- Jantoki-zerbitzua.
- Egoitza-zerbitzua.
- Testu-liburuen eta beste curriculum-material batzuen erabilera.
- Eibarko Hezkuntza Zentroan emateko hainbat zerbitzu.
- Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Dantza Kontserbatorioetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Eskoletako, Arte Aplikatuen eta Ogibide Artistikoen Eskoletako, Arte Eszenikoen Eskoletako, Kirol Irakaskuntzako Zentroetako eta Urrutiko Lanbide Heziketako irakaskuntza-zerbitzuak.
- Azterketa-eskubideak.
- Euskal Herriko Unibertsitatearen goi-mailako hezkuntza-zerbitzu publikoak, titulu ofizialak lortzeko badira».

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko azaroaren 27an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioako sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.